



Urretxuko udala



PAGOETAKO UDAL IGERILEKUAN HARRERA, SARRERA ETA KONTSIGNA ZERBITZURAKO 3 ATEZAIN LAGUNTZAILE KONTRATATZEKO DEIALDIA

Kontratu mota

-
- Lanaldi partzialeko, aldi baterako kontratua, %77ko dedikazioarekin.
 - Goizeko eta arratsaldeko lan-txandak ezarriko dira, eguneko 5 ordukoak.
 - Kontratazioaren datak: 2026/06/12 – 2026/09/06
 - Soldata gordina: 1.456,75 €/hileko izango da. Jai egunetan egindako orduengatik jai-eguneko plusa jasoko da, 8,32 €/orduko.
-

Udal igerilekuak ekainaren 12tik irailaren 6ra bitartean egongo dira zabalik, goizeko 11:00etatik arratsaldeko 20:00etara.

Lan eginkizunak:

-
- a) Instalazioak ireki eta ixtea, Urretxuko Udalak jendearen arretarako jarritako orduetan.
 - b) Erabiltzaileen eta bazkideen sarrera kontrolatzea, baita instalazioen erabilerarengatik egin beharreko kobrantzak egin ere.
 - c) Kutzaren eguneroko kontaketa egitea eta udaltzaingoari ematea.
 - d) Instalazioak ondo erabili eta zaindu daitezen begiratzea, erabilerara araudia betearaziz.
 - e) Erabiltzaileek instalazioak nola erabiltzen dituzten kontrolatzea.
 - f) Udalak izendatutako pertsoneri jakinaraztea instalazioetan gerta litekeen edozein gorabehera, edo erabiltzaileekin sortzen den edozein arazo.
 - g) Galdutako gauzen kontrola.
 - h) Oharrak eta deiak egitea megafonia bidez.
 - i) Erabiltzaileek kontsignan utzitako objektuak kontrolatzea.
 - j) Puntualki garbiketa lanak egitea instalazioa txukun eta egoera onean mantentzeko.
-

Derrigorrez bete beharrekoak:

-
- Gutxieneko adina: 18 urte.
 - Gutxieneko prestakuntza maila: Eskola Graduatua, Bigarren Hezkuntzako Graduatua, Lanbide Heziketa 1. maila edo baliokidea.
 - Euskarako B2 tituluaren edo baliokideren baten jabe izatea.
 - Kontratazio aldian erabat libre izatea, hau da, 2026ko ekainaren 12tik irailaren 6ra.

Merituak:

Derrigorrezko irizpide guztiak betetzen dituzten hautagaien artean, honako puntuazioa hartuko da kontuan aukeraketa egiteko:

- | | |
|--|--------------------------|
| 1.- Informatikako ezagutzak erabiltzaile-mailan | Gehienez 5 puntu |
| • Oinarrizko ofimatika ikastaroa (Word, Excel, etab.):
puntu 1. | |
| • STen erabilera, kudeaketa-softwarea, datu-baseak:
puntu 1 edo 2, egiaztatutako mailaren edo
esperientziaren arabera. | |
| 2.- Funtzioekin lotutako ikastaro osagarriak | Gehienez 5 puntu |
| 15 orduko gutxieneko ikastaroak. Besteak beste: | |
| • Bezeroarentzako arreta, trebetasun sozialak, lehen
sorospenak, etab. | |
| Puntu 1 egiaztatutako ikastaro bakoitzeko | |
| 3.- Errolda | Gehienez 5 puntu |
| Urretxun erroldatuta egotea 2026/04/01 baino lehen | 5 puntu |
| Urola Garaia-ko beste herri baten erroldatuta egotea, 2026/04/01
baino lehen | 2 puntu |
| 4.- Jendeari arreta emateko eta lanpostuaren eginkizunekin
zerikusia duten zereginetan parte hartzea (kirol-zentroak,
udalak, ekitaldiak...). | Gehienez 10 puntu |
| • 0,5 puntu jendaurreko zuzeneko arreta duten
lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko. | |
| 5.- Lanpostura egokitzeko elkarrizketa pertsonala (*) | Gehienez 3 puntu |

(*) Elkarrizketa pertsonala egin ahalko zaie 1etik 4rako merezimenduen balorazioan puntuazio altuena lortzen duten 6 hautagaiei.

Behar bezala egiaztatutako merituak bakarrik izango dira kontuan.

Ez dira egiaztatu behar Urretxun erroldatuta egotea eta Urretxuko Udalean izandako esperientzia, baina bai adierazi behar dira, kontuan har daitezten.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskaera-orria
- NAN-ren kopia
- Deialdian eskatutako tituluak egiaztatzea
- Curriculum eta adierazitako merituen egiaztagiria

Aurkezteko epea eta tokia:

- Eskaera-orriak 2026ko maiatzaren 20ra arte (14:00ak bitartean) aurkez daitezke, Urretxuko udaletxeko erregistro nagusian.



Urretxuko udala



Epaimahaia

Epaimahaia modu honetan osatuko da:

Lehendakaria: Herritarrak batzordearen Lehendakaria.

Mahaikideak:

- Sustapen Soziokulturaleko kide bat.
- Administrazio orokorreko kide bat.
- Langileen ordezkari bat.

Idazkaria: administrazio orokorreko kide bat

Epaimahaiak balorazioa egin ondoren, puntu gehien lortu duten izangaiak kontratatzeko proposamena egingo du.

Lan-poltsa:

Baldintzak bete dituzten izangaiekin lan-poltsa osatuko da, lortutako hurrenkeraren arabera, eta kontratazioak dirauen bitartean sortzen diren beharrei erantzuteko erabiliko da.

Urretxun, 2026ko maiatzak 4an

Sin.: Jon Luqui Albisua
Urretxuko alkatea